


6 mantangorri

CO

AZOKA

## 'AVIS ETA ALBA' TRILOGIA

**Izenburua:** 'Hildakoen eremuan','Espaziotik etorria' eta 'Aitaren sekretua'. **Egilea:** Aitor Arana.**Marrazkiak:** Ivan Mata. **Orrialde kopurua:** 125, 126 eta 127, hurrenez hurren. **Argitaletxea:** Ibaizabal.**IPUINA**

## 'Saba eta landare magikoa'

Saba eta Abisiniako ahuntzaren istorioa kontatzen du. Ahuntza indartsua zen, bizkorra eta askea, Saba bezala. Ahuntzak alde egiten zuen gózero herrixkatik, eta horietako batean, Sabak atzetik jarratu zion. Mendixka baten puntara heldu ziren biak, eta orduan ezagutu zuen Sabak ahuntzaren sekretua: landare miragarri bat zegoen mendi puntan, eta hura dastatzera joan ohi zen. «Kafe» deitu zioten landare miragarriari.

**Yann Degrue**Argitaratzailea: **Tarttarlo**


tzen dituena. Denboran atzera eta aurrera egiten du trilogiak, 1985 eta 2015 artean, eta horrekin du zerikusia lagun misteriotsu horrek. Ez da denbora tarte handia, baina Avisen arrastoak desagerraraztea garrantzitsua izango da, hain zuen ere, joan-etorri horiengatik.

### Utzi duzu garaiaren araberako pistaren bat?

Egia esan, gaizto-gaizto jokatu dut liburuotan –barre egin du-. Hau da, irakurlearekin nahi izan dudana egin dut: liburuak aurrera egin ahala, pista batzuk emango dizkio, baina baliagarriak diren edo ez gerora antzemango dio. Noski, izango dira pista faltsuak identifikatuko dituzten irakurleak ere, baina hasierako helburua haien engainatzea da. Irakurri dutela esan didatenek amua irentsi dute, baina denetarik izango da, noski.

### Erraz irakurtzen dira, letra handi eta ilustrazioekin.

Ilustrazioak zoragarriak dira, nire ustez. Ivan Matak egin ditu, eta oso onto ezkonduta daude testuarekin: batez ere, irakurleari dena eginda ematen ez dietelako. Personaiak oso neutro ageri dira, irakurleak buruan egin dezakeen irudia hondatu gabe, eta hori izugarri gustatu zait.

**MAHAI JOKOA**

## 'Donostiarrok harriz harri'

1813ko abuztuaren 31n Donostia erre zuten tropa frantsesek, eta hiri osoa –egun Abuztuaren 31 kalea dena izan ezik– guztiz suntsituta gelditu zen. Lankidetza sustatzeko jolas da: orain berrehun urte donostiarrek elkar laguntzeko erabili zuten dinamika bera du oinarrian. Hasieran zaila dirudiene eginarriz izango da elkarlaguntzaren bidez.


**Koma Zerbitzu****Kulturalak / Kometa**Argitaratzailea: **Donostiako Udala**

abenturak aurrera egiten duen neurrian.

### Bada beste pertsonaia bat ere, oso misteriotsua.

Bai, Avisen arrastoak deuseztat-

6 mantangorri



## Aitor Arana

IDAZLEA

# «Egia esan, gaizto-gaizto jokatu dut irakurlearekin liburuotan»

**A**vis eta Alba liburu sorta argitaratu berri du Aitor Arana idazleak. Hiru liburuk osatzen dute, *Hildakoen eremuan*, *Espaziotik etorria* eta *Aitaren sekretua* izenekoek. Galdua, non dagoen ez dakiela esnatzen da Avis *Hildakoen eremuan* liburuan. Gainera, bada lagun bat mutikoak utzitako arrastoak ezabatzen dituena: osagai horiek erabili ditu Aranak irakurlearen jakin-mina hasieratik pizteko. 12 urtetik gorakoentzat da aproposa.

### Hasiera misteriotsua du trilogiaren lehen liburuak: beldurrik ez dutenetzako trilogia ote Avis eta Alba?

Egia esan, ikasle irakurleentzako pentsatutako trilogia da. Hau da, asko ibiltzen naiz ikastetxeetan, Ibaizabalen *Idazleak ikastetxean* programaren bidez, eta, beraz, askotan izan dut ikasleekin zuenezan hitz egiteko aukera. Zer gustatzen zaien esaten didate, eta liburu asko idatzi ditut horren ondorioz; baita Avis eta Alba ere.

### Horiek dira, hain zuzen, protagonistak: nolakoak dira?

14 urteko neska-mutilak dira, eta hiri handi bateko ikastetxe batean dabilta. Euren arteko harremana ere gauzatuz joango da,